



Espediente zk./Nº Expediente: 2023ZAKO0006
000000

Erreg. data/Fecha Reg: **Erreg. zk ./ Nº** Registro:

Gaia/Asunto: Errenteriako elkarbizitzarako eta gizarte ekintzako tokiko aholku kontseiluak 2022

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA
Emplazamiento: ERRETERIA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E **Kokalekua/**

ERRETERIAKO ELKARBIZITZARAKO ETA GIZARTE EKINTZAKO TOKIKO AHOAKU KONTSEILUAREN MEMORIA

URTEA: 2022

Dokumentu honetan jasotzen da “**Errenteriako elkarbizitzarako eta gizarte ekintzako tokiko aholku kontseiluak**” **2022**. urtean izandako jardueraren laburpena.

Urteko bilera kopurua. 2022 urtean aholku kontseilua behin bildu da, zehazki 2022ko azaroaren 10an.

Parte hartu dutenak. Bileran ondorengo entitateek parte hartu zuten:

Eragileak: Natalia (Ukraina Euskadi), Iyayi (Nigeriar Artistak), Parke erretiratu etxetik (Ixi), Xabi (Ekintza Bibe), , Gerar (Sos Arrazakeria), Ibiki (Albir Elkarte), Jose Antonio y Maialen (Gurutze Gorria), Alex eta Javier (Duintasuna), Rosa (Emakume musulmandar elkarte) , Ahmed (Eguzki Elkarte). Alderdi politikoak: Iñaki (PSOE), Xabi (Elkarrekin Podemos), Eñaut (Presidentea_ EH Bildu) , Jose Ramón (EH Bildu). Udal teknikariak: Samira eta Leire.

Tratatutako gai nagusiak:

- 1.- Giza Eskubideen asteko informazioa partekatu zen: Giza Eskubideen jardunaldiaren VIII.edizioaren berri eman zen eta Zinema Dokumentalaren nondik norakoak ere zehaztu ziren.
- 2.- Sentsibilizazioko proiektuen diru-laguntzen zuriaketak abenduaren 10erako zuritzea komeni zela gogorarazi zitzairen.
- 3.- EPAko haurtzaindegi zerbitzuaren berri eman zen.
- 4.- Iztieta-Ondartxoko proiektu komunitarioaren berri eman zen, etorkizunean mataderoan kokatuko den espazio komunitarioa aurkeztuz. Bertaratutakoek proiektuaren gaineko lehen zertzeladak jakitea eta aurrera begira ere, jakinaren gainean egotea lortu nahi izan zen.
- 5.- 2022ko abenduan Gaztelutxo udal eraikina “ZEHAR errefuxiatuak” elkarteari 18 hilabetez lagatuko zitzaiola informatu zen. Horrela, Gaztelutxon gerratik ihesi etorri ziren ucraniar ama eta hurrei ostata ahalbideratuz.
- 6.- Bakardadea eta Esku-hartzeak: Halaber, bakardade ez hautaturen arloan gizarte zerbitzuak egiten ari diren banakako eta komunitateko esku-hartzeen berri eman zen. Bi ekintza lerro nagusi daudela informatu zen: bakarkako esku-hartzeak eta jakinarazpen-sistema hobetzeko eta komunitatean detekzio-antenen



eragina handitzeko ekintza lerroa. Azken honetarako, bai Osakidetzan, aholku kontseilu honetan eta erretiratuen elkarteetan, sentsibilizazio-saioak egiten hasiko da udala.

Bakardade-egoera hauek duten eragin kaltegarriekin kezkatuta zeuden Aholku-kontseiluko kideak eta eskertu zuten udalaren aldetik eskuhartzeak egiten hasia.

7.-WIFI diru-laguntzak

Aldi berean, informatu zen abenduaren erdialdean 6-16 adin tartean dauzkaten RGI jasotzen duten Errenteriako familiei 30€/hilabeteko dirulaguntza tramitatzen hasiko direla Gizarte Zerbitzuetatik. Dirulaguntza eta atzeraeragina, irailetik aurrera izango du.

Memoria hau udal gardentasun atarira igoko da, guztien ezagutzarako.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Izptua: Aholku kontseiluko idazkaria

OE

Aholku kontseiluko presidentea



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa19e3675-6796-4568-8d1f-ef681b0baae6**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZAKO0006-URTEKO MEMORIA/MEMORIA ANUAL (ERRENTERIAKO UDALA)